

Zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dute 2.500 karaktere baino luzeago izan behar —tarteak barne—, eta **BERRIAK** mozteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, zen-abizenak eta herria adierazita: Berria, Martin Ugaldel kultur parkea, 2014-0 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: iritzia@berria.info.

Zergatik heldu den larunbatean irtengo?

Datorren larunbatean, abuztuaren 14an, kalera irtengo gara donostiarrok *Euskal Herriaren eskubideen alde* gaudela aldarrikatzeko.

Ez gara ezeren kontra irtengo. Baina bai Euskal Herriari dagozkion eskubideen alde. Eta eskubide horiek ukatuta daudela gogorarazteko.

Francisco Lopez lehendakari dagoenez geroztik, Jaurilaritza Madrildo Delegazio huts bihurtu da. PSOEko agintzen du Madrilren; eta *Provincia Vascongadetan* ere bai.

Eta gero eta lotsagabekiago kaleratzen

ditu dekretuak eta aginduak; disimulatu gabe norantz ari diren Madrilren eta hermen. ikus, honi buruz, **BERRIA**-k 2010eko abuztuaren 6an, 2.-3. orrialdeetan argitaratutako txosten zehatza.

Oso adierazgarria, esate baterako, *Euskal Herria* hitzari balio politikoa kendu nahi izatea. Nahiz hitz horrek XVI. mendeko geroztik, balio nazionala izan: eta politikoa, beraz.

Isabel Zelaak, batetik, ausarki erasotzen du euskal eskola. A ereduaren defendatzaile sutsu, eta D ereduaren etsai amorratua, *escuela norteña* hartu du xede.

Baina muturra sobera ez erakusteko, ingelesaren interesa azpimarratzen du, es-

painiera ukitu gabe; baina euskararen lehenetasuna guztiz erauziz.

Alberto Suroren eskutik, bestalde, *ETB television regional del Norte* bihurtua da. Ikusleak gaitzen ditu zitu bidez, galera hau PSOEko agintariei bost axola zaielarik. Hain zuzen, halako batez, ikusleak ez duenez, guztiz desagertzea da helburua.

Donostiako aikatea bera, ñabardura batzuk ukatu gabe, PSOEko mutila da, eta, hortaz, Madrilren alkatea.

Zer esanik ez Nafarroa Garaiaz. PP+PSOE elkarketa dela—eta, Sanz eta Barcina Madrilren morroi fidelak dira, eta Nafarroa eta Iruñea eskualde «normalizatuak». Alegia, espainolak.

Eta Iparaldean zuloa doaz euskara,

gure etxeak eta basemak, frantsesek erositik. Dena doa pikutara, eta oso azkar.

Hori bakarrik ez. *Ley de Partidos* delakoaren bitartez, ordezkari politikoak eta kulturalak, abertzaleak kanpoan utzita geratu dira. Eta ohitu ere egin gara!

Donostiarrok ongi jabetu gara honetaz guztiaz. Eta ongi dakigu arazoa ez dela municipala bakarrik. Arazoa orokorra da. Euskal Herri osoa dugu zaurturik.

Aior guztietan pairatzen dugu egoera.

Eta euskararenean ere bai. Madrildik, Gasteiztik eta Iruñetik, gure hizkuntzari balaio ukatzen zaio etengabe. Neuri ofizial guztiek helburu nabarmena dute: euskarak ezertarako balio ez izatea. Faxismoaren garaietan bezalaxe.

Bada garaia tenk egiteko. Eta beharrezko olatua indartzeko.

Hometarako itengongo gara kalera Donostian datorren larunbatean, abuztuak 14.

Jose Luis Alvarez Enparantza, «Txillardegil» idazlea.

Hitza berreskuratu

Borja Agirre

'**Neu ere hitzaren eske nator**' ekimenaren sustatzaileen izenean

Hasieratik... betidanik... hitza izan dugu gure kristau espe-rirentziaren oinarria. Nazareteko Jesusengan haragtitutako hitza; Berri On askatzailea den hitza, justizia, berdintasuna eta anaitasuna sortzen dituen hitza; Eukaristian oroigarri egiten den oroitzapenezko hitza; hizkuntza ezberdinetan adierazten diren hitz ezberdinak, baina, hala ere, komunikaziorako eta elkar ulertzeko oztipo ez diren hitzak; izan ere, Mendekostea ahalbidetzen dute, eta bertan, jarraitzaileen esperientzia plurala mundu osorako balio duen salbamene eskaintza unibertsal, baina ez uniforme, bihurtzen da; neba-arreben artean elkar zentzatzeko balio dutenak eta, horrela, maitasunean eta konpromisoan zimentutako sendeen arteko harremanak sortzen dituenak; beste kultura eta tradizio batzuetan erein eta hazitakoan, eraldatu eta aberasten diren hitz misiolariak; askatasun-hitzak, gu baino lehenago, beste askok beren biziaz babestu eta defendatu dituztenak...

Gaur egun, ordea, hitz hori debekatzen hasi dira. Katixime-tan, dogmetan eta kodigoetan jasotako dotrina gordetzeko ai-

tzakiarekin, batzuek aniztasunari, konplexutasunari eta bote-rea galtzeari dioten beldurrak isilarazten ditu beste askoren ahotsak; Elizan eta munduarekin askatasun eta elkarrikizeta esperientzia aldarrikatzen duenari ahoa estali nahi zaiola.

Zigortutako eta isildutako azken hitza Joxe Arregi teologo frantziskotarrarena izan da. Badirudi ez duela gaunditu bere go-tzainak jarri dion katixima azterketa. Bera baino lehenago Jose Antonio Pagola, Juan Masia, Jon Sobrino, Jose Maria Castillo, Casiano Floristan... Badirudi gure gozainek, «komunioaren» izenean, dotrina hutsegiteak saihesteko ahalegi-na erraztegi bihurtzen ari dela ezberdina dena suntsitzeko estrategia eztabaldaezin; instituzioaren aurrean eta gure agintar-ien aurrean beti ahulagoa den ezberdina, alegia. Horrela ortzen duten bakarra zera da: Eli-za gero eta gehiago ahultzea eta zauritzea.

Elizak berak, sorreratik bertatik, jarri zion galga tentaldi arriskutsu honi. I.Kor.8,1-13 pasartean ikus dezakegunez, Pablok geldiarazi egin zituen gara horretako sendoak eta botere-tsuak, teologiaren aldetik ortodoxoak; izan ere, beren botereaz baliatuz elkarteko ahulak bir-rinditu nahi zituzten, ezinezkoa baitzaitzen hauen formulazio teologikoak (monoteistak) onartzea. Paulok baieztatu zuen: «Zientziak puztu egiten du; maitasunak, ordea, eraiki».

Gal.2,11-14 pasartean Paulok Pedrori errieta egiteko askatasuna izan zuen, Apostoluen I. Kontzilioak erabakitakoa bete ez zuelako. Joseph Ratzingerrek honako hau idatzi zuen 1962an gai honen inguruan: «Elizak askatasun eta tolesgabetasunezko espiritua behar du hitz hauek erakusten duten moduan: *Ez ezazue agortu Espiritua* (1 Tes.5,19)... Pedrok makal-tasunagatik ukatu batzuen Ebanjelioaren askatasuna, Santiagoren jarraitzaileen beldur zelako; gogo handitasuna erakutsi zuen, *bekoz beko aurre egin zion* (Gal.2,11-14) Pabloren askatasun artzartean. Elizak, gaur egun, jentilen munduaren aurrean atea ireki zizkion askatasun horretatik bizi da. (J. Ratzinger, *El nuevo pueblo de Dios*, Herder, Barcelona, 1972, 294.orr.)

Baina ez dugu zertan horren urrutira joan. Gure kristau tradizioaren azken Kontzilioak honako hitz hauek jasotzen ditu Gaudiun et Spes-eko 62. zenbakian: «Teologoak, zientzia teologikoari dagozkion metodoak eta eskakizunak zainduz, beren garaiko gizakiei doktrina azaltzeko era egokiagoa etengabe bilatzea deitatu dira; izan ere, gaur bat da fedearen gordailua bera edo egia, eta beste bat haiek azaltzeko era, baina zentzu bera eta esanahi bera gozdez 135. Ardura pastorelan behar bezala ezagutu eta aplikatu behar dira ez printzipio teologikoak soilik, baina zientzia profano-

en aurkikundeak ere, bereziki psikologia eta soziologiarenak, fededunak fede-bizitza garbiago eta helduagora eramane ahal izateko [...]. Saia bitez seminarioetan eta unibertsitateetan zientzia teologikoei emanak daude-nak beste zientzia batzuetan gailentzen diren gizakiekin elkarlana egiten, beren indarrak eta asmoak bilduz. Ikerteta teologikoak, era berean, errebela-turiko egia sakonkiago ezagutzera jo behar du, eta ez du ahaztu behar bere garaiarekiko erlazioa.

Elizak ezinbestekoa du teologia eta kultura mailako elkar-rikizeta, Jesusen Ebanjelioa egoki transmitituko badu historiarako garaia eta toki bakoitzean. Elizak nahasten badu zientzia teologikoa katiximadik ematen dituen definizioekin, gero eta gehiago pobretuko da, azkenean ebanjelioa bera hutsal bihurtuko da, eta berri ona bera po-zoituko edo itoko du kultura adie-

Zigortutako eta isildutako azken hitza Joxe Arregi teologo frantziskotarrarena izan da. Badirudi ez duela gaunditu bere gozainak jarri dion katixima azterketa

razpen zahar edo zaharkituekin. Kristau elkarrekin eta Jainkoaren Erreinuaren erakitzeko era nagusia eta behinena benetako eta egiazko hitza izan da; antzeman ezin daitekeen Egia eta krea-zioan, kultura ezberdinetan, erlijioetan eta zientzian adierazten diren egia partzialek ezta-baidan jar dezaketean eta jartzen duten Hitz zintzoa eta benetako. Uste dugu Jainko sortzailearen Espirituak, entzutearen eta hitzaren bidez, ezagupen eta harreman sakonago batzuetara jotzen duela... eta fedearen ezagutza osoago batera.

Espiritu berak eragindako eta sorturiko karisma eta tradizio ezberdinen onarpena izan da. Eliza sortu zen unetik bertatik eta ondorengo garaiz gutzietan, komunio eta batasunerako iriz-piderik arpena (I.Kor.12,4-11) eta ez dotrinak, ezta formulazio katekesikoak ere.

Horrengatik guztiagatik uste dugu *hitza berreskuratzeko* garaia dela; Komunioa eta Komunizatearen izenean baraila edo aho-estalki gehiagorik jarri ez dadin errebendikatzeko garaia; anai-arreben arteko elkarrekin baten gisa bizi izatea oztopatzen diguten egitura bidegabeak eta prozedura «ilunak» salatze-ko garaia; hau da, duintasunean berdina garen, askatasunean eta senidetasunean bizi izaten eta askatasuna erakitzen bizi izatera dituen izan garen anai-arrebak; eta gure artzainei Jesu-sen hitz hauek gogoratzeko garaia: «Herrien buruzagi direnek menpean hartzen dituzte herri-riok, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete. Zuen artean, ordea, ez du horrela izan behar. Zuen artean handien izan nahi duena izan bedi zerbiz-tzari». (Mk.10,42-43).

Artikulu hau sinatu dute Pilitxu Aspuru, Javi Callek, Aitor Etxebarriak, Manje Goikoetxe-ak eta Joserra Iñurategik.